

## ZARAUZKO UDALAREN 2025. URTEKO ARAUGINTZA PLANA

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, honako hau dio 132 artikuluan:

*“Arau-plangintza.*

- 1. Urtez urte, administrazio publikoek argitara emango dute araugintza-plan bat, eta hartan jasoko dira hurrengo urtean onesteko igorriko diren lege-edo erregelamenduekimenak.*
- 2. Onetsitakoan, Urteko Araugintza Plana argitaratu egingo da, dagokion administrazio publikoaren gardentasun-atarian.”*

Udalak xedapen orokor batzuk aurreikusiko ditu, araugintza onaren printzipioetan oinarrituta. Aurreikuspen horiek udal jardunaren planifikazioa hobetzen dute, gardentasunean sakondu, segurtasun juridikoa areagotu eta herritarren parte-hartzea bultzatu.

Helburu horiek lortzeko asmoz, udal departamentuek egindako proposamenekin bat etorriz, Zarauzko Udalaren Araugintza Plan hau egin da 2025. urterako, honako eduki honekin:

### **A) ANTOLAKUNTZA ARLOA**

#### **A.1. KONTU-HARTZAILETZA**

##### **A.1.1. ORDENANTZA FISKALAK (aldaketa)**

*Justifikazioa:*

Udal tributu eta prezio publikoen urteko berrikuspenak eta eguneratzeak egitea, honako gai hauek kontuan izanda:

- Ordenantzak egokitzea, maila goreneko xedapenen aldaketetara edo berrikuntzetara.
- Udal zerga, tasa eta prezio publikoak eguneratzea edo aldatzea, bai kopuruei dagokienez, bai hobari eta salbuespenei dagokienez.
- Diru-sarrerren maila eguneratzea edo aldatzea.

- Prozedura administratiboak eta zerga-kudeaketa arrazionalizatzea.

*Ekimenaren helburu nagusia:*

Udalaren nahikotasun finantzarioaren printzipioa indartu eta mantentzea, Udalak bultzatu edota ekidin nahi dituen egintzak eta helburuak kontuan hartuta.

#### A.1.2. TOKIKO TRIBUTUEN ETA ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTE DIRU-SARRERA BATZUEN KUDEAKETA ETA IKUSKAPENA ARAUTZEKO ORDENANTZA OROKORRA (BERRIA)

*Justifikazioa:*

Ordenantzaren xedea da:

- Tokiko tributuen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa hobetu eta erraztuko duten prozedurazko hainbat gai arautzea.
- Hainbat ordenantza fiskaletan komunak diren gaiak arautzea, ez errepikatzeko.
- Udalak zehaztu edo garatu beharreko gaiak arautzea.
- Herritarrak informatzea indarrean dauden arau eta prozedurez eta beren eskubide eta bermeez. Informazio hori interes orokorrekoa da, eta behar-beharrezkoa zerga-obligazioak ondo betetzeko.

*Ekimenaren helburu nagusia:*

Kudeaketa arrazionalizatzea eta prozedurak zehaztu eta garatzea, betiere maila goreneko xedapenak errespetatuz; eta, bide batez, herritarrei indarrean dauden arauen eta prozeduren berri ematea.

## A.2. IDAZKARITZA

### A.2.1. ZARAUZKO UDAL ARTXIBOAREN ARAUDIA

*Justifikazioa:*

Zarauzko Udal Artxiboak oraindano ez du izan bere barne funtzionamendua arautzeko araudirik, eta guztiz beharrezkoa da. Araudi horren barnean honako gai hauek sartzen dira: udal dokumentazio-ondarearen kudeaketa eta tratamendua, zerbitzua erabiltzeko baldintzak, kontserbazioa eta hedapena.

Udal Artxiboak Udalean sortutako eta jasotako dokumentazioa kontserbatu eta horren berri ematen du. Horretaz gain, funtsezko informazio-iturria da udalerrriaren eta lurraldearen ikerketa historikorako. Zarauzko Udal Artxiboak dokumentuak jaso, zaindu eta hedatzen ditu. Dokumentu horiek lekuko materialak dira, alegia, historian zehar udal instituzioaren memoria iraunkorra osatuko duten testigantzak.

Bestalde, legediak hiritarrei informazioa jasotzeko eskubidea ematen dienez, Udal Artxiboa zerbitzu publiko bat ere bada, eta Udalak zerbitzu hori ziurtatu behar du.

Araudiaren helburua da, alde batetik, udal ondare dokumentalaren izaera kuantitatibo eta kualitatiboa mugatzea, eta ondare horren zaintza, batasuna, defentsa eta eskuragarritasuna bermatzea. Eta bestetik, udal funtzio administratiboaren ikuspegitik, helburua da haren funtzionamendua ona eta arina izatea, eta eguneroko jarduerak sortzen dituen beharrei erantzutea.

*Ekimenaren helburu nagusia:*

Funtzio horiek guztiak beteko dituen artxiboaren funtzionamendua arautzea, eta udal departamentuek, horietako langileek eta gainerako erabiltzaileek araudia argi izatea.

## **B) HERRITARREN ARLOA**

### **B.1. GIZARTE ZERBITZUAK**

### B.1.1. ADINEKO PERTSONENTZAKO BABESPEKO APARTAMENTUAK ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA (aldaketa)

*Justifikazioa:*

ADINEKO PERTSONENTZAKO BABESPEKO APARTAMENTUAK ARAUTZEKO ERREGELAMENDUAN (2019ko otsailaren 19ko GAOn argitaratutakoa) hainbat zehaztapen egin nahi dira erabiltzailearen ekarpenari dagokion artikuluan (23. artikulua). Aldaketa egiteko arrazoi nagusiak:

- Bikoteen kasuan, ez da zehazten zein izango den eskuragarri gelditzen den kopurua ezartzeko formula.
- Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradunen kasuan, zein ekarpen egin behar duten zehaztu nahi da.
- Ekarpen minimo bat jartzea aztertu nahi da, edozein kasutan.
- Urteko IPREM (Ondorio askotarako Errentaren Adierazle Publikoa) kalkulatzeko, 12 edo 14 hilabetekoa izatea aztertu eta zehaztu nahi da.
- Itxaron zerrenden kudeaketa argitu nahi da.
- Beste zehaztapen batzuk.

*Ekimenaren helburu nagusia:*

Erabiltzailearen ekarpenari dagokion artikulua egokitzea/aldatzea, egun dituen hutsuneak saihesteko eta bestelako zehaztapen batzuk egitea.

## **B.2. KIROLA**

### B.2.1. UDAL KIROL INSTALAZIOETAKO JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ARAUDIA

*Justifikazioa:*

Zarauzko Udalak ez dauka udal kirol instalazioetako jarduera fisikoaren eta kirolaren praktika eta garapena arautzen duen araudirik. Besteak beste, honako atal hauek garatu eta arautu behar dira:

- Kirol Departamentua: orokortasunak, zerbitzuak eta beste.

- Erabiltzaileak: eskubideak, betebeharrak, erantzukizunak eta beste.
- Kirol instalazioak: ezaugarriak, erabilera-jarraibideak eta beste.
- Antolaketa-jarraibideak eta prozedurak.
- Zigor-araubidea, diziplina-prozedurak.

Gai horiek arautzeko oinarriak:

- 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- Indarrean dauden beste araudi batzuk.
- Zarauzko jarduera fisikoaren zein kirolaren errealitatea.
- Zarauzko Udaleko beste zehar-lerro batzuk: berdintasuna, hizkuntza, ingurumena, etab.

*Ekimenaren helburu nagusia:*

Egungo araudietara, kirol politikara, errealitatera eta erabiltzaile motara egokitzea Zarauzko Kirol Departamentuko araudia.

### **B.3. UDALTZAINGOA ETA MUGIKORTASUNA**

#### **B.3.1. ZARAUZKO HIRI-BIDEETAKO ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZA (aldaketa)**

*Justifikazioa:*

ZARAUZKO HIRI-BIDEETAKO ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZA Zarauzko udalerrinari berezko arau batzuk ezartzeko idatzi zen, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Bide Segurtasun eta Trafikoari buruzko Legeak ezartzen zituen neurrien osagarri gisa, erabiltzaileen segurtasuna areagotzeko, ibilgailuen trafikoaren beharrezko arintasuna hobetzeko, eta aparkalekuen errotazio eta erabilera ona bermatzeko xedez.

Ondorengo urteetan, 339/1990 Legearen testu artikulatuan eragina zuten arau ugari sortu ziren, eta horiek jasotako xedapenak barneratzeko, 2014. urtean, apirilaren 7ko

6/2014 Legeak Gobernuari baimena eman zion testu bategin bat onartzeko; bertan, behar bezala erregularizatuta, azalduta eta harmonizatuta integratuko dira Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua, hura aldatu zuten legeak eta testu artikulatua txertatu ez ziren lege aldatzaileen xedapenak. Aipatutako baimen horri jarraikiz, testu bategina onartu zen: Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua. Hori dela eta, testu bategineko xedapen horiek guztiak ordenatu eta berriro zenbakitu behar dira udal ordenantzan.

*Ekimenaren helburu nagusia:*

Ordenantzak xedatzen duen guztia gaur egun indarrean dagoen legedira egokitzea.

### B.3.2 ZIGORTZEKO AHALMENA ERABILTZEKO PROZEDURA LABURTUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA (aldaketa)

*Justifikazioa*

Ordenantza honen xedea da Zarauzko Udalak zigortzeko duen ahalmenaren erabilera arautzea; alegia, prozedura laburtu bat jartzea arau-hauste arin gisa tipifikatuta dauden ez-betetzeen tramitazioan polizia-zeregina errazagoa izateko. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoaren arabera, Udalak dauka zigortzeko ahalmena.

Zigor-prozedura honako hauek arautzen dute: (i) urriaren 15eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak eta (ii) martxoaren 16ko 1/2023 Legea, Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzkoa. Hori horrela, ordenantza eguneratu egin behar da, berritutako legeek xedatzen dutena bertan sartzeko.

*Ekimenaren helburu nagusia*

Ordenantzak xedatzen duen guztia gaur egun indarrean dagoen legedira egokitzea.

## **B.5. GAZTERIA**

## B.5.1 ZARAUTZI BURUZKO GRADU AMAIERAKO LANAK ETA MASTER AMAIERAKO LANAK EGITEN LAGUNTZEKO BEKAK (BERRIA)

### *Justifikazioa*

Zarautzen unibertsitateko ikasketak egiten ari diren gazteak bultzatu nahi ditugu ikasturte amaierako lanetan Zarautzi buruzko errealitateak aztertzerara. Izan ere, berez, urtez urte, gazte askok egiten dituzte horrelako lanak dagokien titulazioa lortzeko, eta askotan lan horiek ahaztuta geratzen dira.

Gainera, lanok aukera emango dute Zarauzko errealitateak diziplina eta korrante desberdinetatik aztertzeko, eta gazteek egiten duten lanari balioa emateko.

### *Ekimenaren helburu nagusia*

Helburua da Zarauzko Udaleko Gazteria Departamentuak gazteei bekak ematea, norgehiagoka araubidez, Gradu Amaierako Lanak eta Master Amaierako Lanak idazteko.

Beka horien bidez, gazteen lanei balioa eta hedapena eman nahi zaie, beti ere, lanok Zarautzekin erlaziorik badute (ekimenak, zerbitzuak, industria, historia...).

## **C) LURRALDE ARLOA**

### **C.1. HIRIGINTZA ETA INGURUMENA**

#### **C.1.1. ANIMALIAK EDUKITZEA ETA BABESTEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA (aldaketa)**

### *Justifikazioa:*

Arlo honetan egon diren araudi aldaketak direla-eta (besteak beste, ekainaren 30eko 9/2022 Legea, Etxeko Animaliak babesteari buruzkoa, eta martxoaren 28ko 7/2023 Legea, animalien eskubideak eta ongizatea babestekoa) Udalak 2006. urtean onartutako ordenantza erabat zaharkituta geratu da eta berritu behar da.

*Ekimenaren helburu nagusia:*

Ordenantza araudi-aldaketetara eguneratzea eta garai berrietara egokitzea. Aztertuko da soluzio egokiena zein den: lehengo ordenantza aldatzea edota hura indargabetu eta berri bat onartzea.

### C.1.2 ZARAUZKO HONDARTZAKO UDALDIKO ERABILERA-ARAUBIDEA ETA JARDUERAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

*Justifikazioa:*

Zarauzko hondartza herriko baliabide nagusienetako bat da eta ezinbestekoa da bertako erabilerak eta jarduerak arautzea. Izan ere, interes desberdineko erabilera ugari izaten dira bertan eta administrazioek zaindu behar dituzte erabiltzaileen segurtasuna, ingurumenarekiko errespetua, aisialdirako aukerak eta abar.

Zarauzko Udalak onartua du Hondartzarekiko politika eta honela dio:

*Ikuspegia: nolakoa da nahi dugun hondartza?*

- ✓ *Zarauzko hondartza guztiontzat irekia eta prestatua dago. Lasaia eta segurua da, eta kalitatezko zerbitzuak eskaintzen ditu. Gune garrantzitsua da ekintza aktibo eta osasuntsuak egiteko eta guztion aisialdirako plaza izateko.*
- ✓ *Hondartzak natura balio handia du. Herritarrek balio hori ondo ezagutzen dute eta aktiboki babestu eta zaintzen dute.*
- ✓ *Klima aldaketaren inpaktuei aurre egiteko, beharrezko neurriak hartuta daude eta, ondorioz, muturreko itsas gertakarien aurrean kalteak gutxitu dira.*
- ✓ *Zarauzko hondartza zaraustarren nortasunaren erakusleihoa da, elkarbizitzarako gunea, euskara entzun eta tokiko kultura arnasteko eremu paregabea.*

*Hauek dira onartutako erronkak:*

- ✓ *Hondartzaren balio naturala babestea eta klima aldaketaren inpaktuak gutxitzeko udalerrria egokitzea.*

- ✓ *Hondartzako erabilera guztien arteko oreka lortzea, kalitatezko zerbitzuak eskainiz eta segurtasuna bermatuz.*
- ✓ *Hondartza Zarauzko nortasunaren agertokia izatea eta gizartearen balioak lantzeko eremu bilakatzea.*

Erronka horiei aurre egiteko, ezinbestekoa da hondartzako joko arauak garbi izatea. Udalak aspaldidanik ditu araututa hondartzako erabilerak eta jarduerak, jada 2004 urtean onartu zuen lehenengo ordenantza, baina ezinbestean eguneratu behar dira arau hauek.

*Ekimenaren helburu nagusia:*

Ekimenaren helburua nagusia da Hondartzako Ordenantza berrikustea. Izan ere, urte guzti hauetan antzeman ahal izan dugu hainbat atal egoera berrietara egokitu behar direla, bai Itsas Ertzeko araei dagokienez, bai animalien ongizateari buruzko araei dagokienez eta bai erronka berriei dagokienez.

Arau horien bitartez helburua da udal departamentuek, horietako langileek eta gainerako erabiltzaileek hondartza erabiltzeko araudia argi izatea.

### C.1.3. ZARAUZKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK ARAUTZEKO ORDENANTZA (aldaketa)

*Justifikazioa:*

Indarrean dagoen ordenantza 2008an onartu zen, higiezinaren burbuilaren garaian. Geroztik, hainbat lege eta arau onartu dira, eta horiek eragina izan dute etxebizitza babestuen erregimenean: Etxebizitzaren 3/2015 Lege autonomikoa, eta bereziki, 2022ko ekainaren 30eko Agindua, babes publikoko etxebizitzaren gehieneko prezioak arautzen duena; horiekin batera aipagarria da baita ere, Estatuko 12/2023 Legea, etxebizitza eskubidea arautzen duena.

Ordenantza egokitu egin behar da gerora sortutako indarreko araudira. Ekimena martxan jarri baino lehen, partaidetza-prozesu bat abiatuko da Zarauzko etxebizitzaren egoeraren azterlanari buruz.

*Ekimenaren helburu nagusia:*

Ordenantza araudi berrira egokitzea, eta, bereziki, udal etxebizitza tasatuen gehieneko prezioak etxebizitza tasatu autonomikoekin parekatzea, horiek baino altuagoak ez izateko.

#### C.1.4. LOKALAK ETXEBIZITZA BIHURTZEKO ORDENANTZAK (aldaketa)

*Justifikazioa:*

Indarrean dagoen ordenantza 2010ean onartu zen. Geroztik, goiko epigrafeko arau-aldaketez gain, hau onartu da erkidegoan: 80/2022 Dekretua, EAEn etxebizitzen eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituenak. Dekretu hori 2023an sartu da indarrean, eta hainbat kontutan talka egiten du udal-ordenantzan jasotako bizigarritasun-baldintza teknikoekin.

Ordenantza egokitu egin behar da gerora sortutako indarreko araudira. Ekimena martxan jarri baino lehen, partaidetza-prozesu bat abiatuko da Zarauzko etxebizitzaren egoeraren azterlanari buruz.

*Ekimenaren helburu nagusia:*

Goian aipatutakoaz gain, udal-ordenantzan jasotako bizigarritasun-baldintza teknikoak aztertu eta berrikusiko dira, Erkidegoko 80/2022 Dekretuarekin dauden kontraesanak ekiditeko.

Aldi berean, ordenantzaren zenbait konturen aplikazioa zabaldu egin nahi da Hirigune Historikoko beheko solairuetan egokitu daitezkeen etxebizitzetara, gaur egun erregulazio bereiztua baitute.

Aldaketa horiek, agian, indargabetu egingo dituzte 1.1 areako –Alde Zaharra– eta 1.2 areako –Hirigunearen zabalkundea– plan berezien ordenantza orokorretan behe-solairuetan etxebizitzak egokitzeko jasota dauden baldintza tekniko batzuk (bi plan berezietako 5. artikulua).